

# METABERTSOA

«Metaverse» interakziorako espazioaren aukerak eta arriskuak aztertu dituzte

 SARE SOZIALAK / Eva Carnero


Faceboocken sortzaile Mark Zuckerberg prestatzen ari den proiektua, «Metaverse», makinena, abatar idealizatuen eta mundu birtual berri baten interakziorako espazioa da. Proiektua gauzatu arte hamarkada bat igaroko omen da, «kontu garrantzitsuak baitaude konpontzeko»; edonola ere, adituak haren aukerak eta arriskuak aztertzen hasi dira.

**M**ark Zuckerberg historia-  
ra pasatuko da, zalantzarik gabe, azken hogeitako gizateriaren noraeza azaltzeko gizaki giltzarrietako bat bezala. Haren meritua? Facebook sare soziala sortzea eta, harekin, ha-

rremanak izateko modu bat. Ia bi hamarkadaren ondoren, ameslari gazteak duela aste batzuk iragarri zuen *Metaverse* prestatzen ari dela, etorkizun oparoko izen horrekin bataiatutako proiektu berritzaile bat. Zuckerbergen «ume» berria, berak aurkezpenean azaldu zuen bezala, makinena, abatar idealizatuen eta mundu bir-

tual berri baten interakziorako espazio bat da; bertan, arteak, arkitekturak, edertasunak eta fikzioak topo egiten dute sozializatzeko, erosteko edo negozioak egiteko. Hori guztia, errealitate birtualari eta errealitate areagotuari esker. «Zuckerbergekin hilabeteak zeramatzan metabertsoari buruz hitz egiten, eta Facebookek urteak daramatza errealitate birtualeko gailuak eta funtzionaltasunak garatzeko edo erosteko diru kopuru astronomikoak inbertitzen», dio Ferran Laluezak, UOC Katalunia-ko Unibertsitate Irekiko Informazioaren eta Komunikazioaren Zientzien Ikasketetako irakasle eta GAME Ikaskuntza, Komunikabideak eta Entretenimendua taldeko ikeritzaileak. Laluezak ziurtatu

Ingurune birtual batek abusua eta gorroto diskurtsoak bultzatitzake.  
Dima SOLOMIN | Unsplash.com



duenez, Metako arduradunaren arabera, proiektu honek hamarkada bat beharko du gauzatzeko.

Izan ere, Cesar Corcoles UOCeko Informatika, Multimedia eta Telekomunikazio Ikasketetako irakasleak eta beste aditu batzuek diote oraindik bide luzea dagoela egiteko teknologiarik dagokionez. «Alde batetik, pantailek bereizmena eta gogorazpen maiztasuna handitu behar dituzte. Bestetik, kaskoek erosoago edo, gutxienez, arinagoak izan behar lukete, haiek jantzita egunean ordu batzuk eman nahi baditugu», adierazi du irakasleak, eta hauxe gaineratu: «Errealitate birtualeko munduekin elkarreragin hobea izateko bidea ematen diguten gailuak ere aurkitu behar ditugu: orain ditugun aginteak, baita keinu antzema-tea ere, nahiko baino nahikoa-go dira erabilera askotarako, baina motz geratzen dira teknologia hori publiko zabalaren artean hedatzea nahi badugu».

**FACEBOOKEN AZKEN ASTINDUAK**

Hamazazpi urteko *follower*-en eta *like*-en ondoren, adituek diote Facebook bere onenak emanda dagoela. Azken azterketek geldialdia erakutsi dute, are beraren kide kopuruaren beherantzko joera ere. Hala berretsi dute *epdata.es* webgunean argitaratutako “The Social Media Family” txosteneko datuek. Horien arabera, Facebooken erabiltzaile kopurua ez da asko aldatu azken sei urteetan, eta gaur egun 20 eta 22 milioi artean jarraitzen du.

Beste alde batetik, sare horren erabiltzailearen profila 16 eta 74 urte bitarteko emakume batena da, Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera. Kolektibo hori guztizkoaren %70,9



Birtuala izan arren, pertsonak mundu horretan izango dituzten esperientziak benetakoak izango dira eta bertako arazo batek benetako traumak sor ditzake. Argazkian, errealitate birtualeko aplikazioen kongresu bat. Juanan RUIZ | FOKU

da, eta adin tarte bereko gizonak, berriz, %66,8. Zifra horietan oinarrituta, teoria bat agertu du Laluezak: «Sare sozial gisa, belaunaldi berrientzat Facebookeek ez du garrantzirik».

Baina horrek esan nahi du «belaunaldi berri» horietako kideak izango direla metabertsoaren erabiltzaile bakarrak? Adin handieneko taldeak kanpoan geratuko al dira? Pierre Bourdin UOCeko Informatika, Multimedia eta Telekomunikazio Ikasketetako irakaslearen arabera, pertsona batzuei besteei baino gehiago kostatu-ko zaie, «eta ziur aski bai, kan-

poan geratuko dira. Baina, oro har, adin guztietako kontsumitzaileentzat izango dela uste dut. Telefono mugikorren agerpenarekin konpara daiteke. Hasieran, ez zen oso ohikoa, teknologiazaleentzat baino ez; hala ere, gaur egun mugikorrik gabeko pertsona gutxi dago».

**AZAL GARBIKETA UNE EGOKIAN**

«Kezko hesi» trinko bat zabalteko iragarri zuten metabertsoa. «Argi dago asmoa arreta desbideratzea zela, Frances Haugen langile ohiak egindako salaketa oso larriak eta lehentxoago taldeko plataforma guztien ‘megaitzalaldiak’ izan zuen inpaktua zirela eta», adierazi du Laluezak.

Sare sozialak irabazi duen ospe txarra dagoeneko taldeko gainerako plataformak zipriztintzen hasi da, hala nola WhatsApp edo Instagram; plataforma horiek «dirutzarekin sartu ziren multzo horretan», gogorarazi du Laluezak. Berak uste du metabertsoa bezain karta

zalantzazko batean guztia jokatzeak arriskutsua eman dezakeela, «baina, ziur aski, horren alternatiba bakarra eskandalo artean guztiz hondoratu arte ahultzea du; izan ere, TikTok eta beste lehiakide batzuek hortzak erakusten dituzte eta sare sozialetako podiumerako hautagai argiak dira dagoeneko».

**IRAULTZA EDO BILAKAERA NATURALA?**

Uste denez, plataforma berria ez da abian egongo hamarkada bat igaro arte. Epe hori nahikoa al da Facebooken bilakaera natural gisa ezartzeko? Hala dirudi. Pierre Bourdinek behintzat horixe uste du, ez du uste haustura bat gertatuko denik, eboluzio bat baizik. «Iruditzen zait bat etorriko direla komunikazio sareen teknologiak, teknologia mugikorrak eta errealitate birtual eta areagotua edo mistoa. Hau da, uste dut laster izango dugula gailu mugikor bat gure betaurrekoekin konektatuta eta, beharbada, eskumuturreko bat edo horrelako beste gailu bat, metabertso horretara sartzeko aukera emango duena», hausnartu du adituak.

Baina zein teknologiak egingo du posible «miraria»? Adituek iragarri dute mundu birtual hori gaitzeko teknologia ez dela 5G izango, baizik eta etorkizuneko 6G teknologia ezarriko dela. Horri esker, errealitate areagotuko betaurrekoak jarri eta gure ikus eremuan informazio gaininprimatua ikusi ahal izango dugu, edo errealitate birtualeko betaurrekoak, us-tekabeko esperientzia ugaritarako sarbidea emango digutenak. «6G-ak, ziurrenik, bideo jokoetan, zineman, telebistan, modan, musikan eta publizitatean bide egingo du, eta, zergatik ez, bidaia agentzie-

**Ferran Lalueza: «Esperientzia oso errealistak eman diezazkieke bestela horiek bizitzeko aukerarik izango ez luketenei, eta horrek, nolabait, ondorio demokratizatzailea dakar»**

**Pierre Bourdin: «Mundu hori birtuala izan arren, pertsonak han izango dituzten esperientziak benetakoak izango dira. Bertako arazo batek benetako traumak sor ditzake»**



tan, oporrek proposatu ahal izango baitituzte metabertsoan», iragarri du Bourdinek.

Idea hori babestuz, Corcolesek haxe adierazi du: «6G teknologiaren banda zabalek eta latentziak justifika lezakete mugikortasuneko errealtate areagotuan erabiltzea, metabertsorako deskribatutako agertokian sartzen dena».

Proiektuaren alderdi teknologikoan sakonduta, Corcoleski ziurtatu du errealtate birtualaren eremuan elkarrekintza dela zailtasun handieneko puntua: «Oraitxe bertan ez dago arazo horretarako behin betiko konponbiderik, eta ez dut uste hori konpondu gabe publiko zabalarengana irits daitekeenik».

Izan ere, aditua ez dago erabat ziur Zuckerbergen metabertsoa gauzatuko denik, ez bailitzateke lehen aldia izango bost edo hamar urteren buruan errealtate birtual eta areagotuak gure egunerokotasuna bereganatuko duela iragartzen dena. «Oraingoan izan

liteke, baina kontu garrantzitsuak daude konpontzeko», ondorioztatu du.

#### MUNDU JASANGARRIAGOA

Hura ezarrita ikusiko dugula uste izanda, aditu askoren iritzien arabera, «gurdira igo-tzen ez dena» zaharkituta geratuko da. Hala uste dutenen artean Lalueza irakaslea dago, eta espazio berri honen gar-tzaileek Interneteko jauzi kua-litatibo ikusgarri gisa salduko dutela adierazi du. Horrela, gi-zartean sortu nahi duten sen-tasioa da, metabertsoaren parte ez bazara, atzean geratu-ko zarela eta mundu berri «zuckerbergtarak» eskaintzen dituen aukera berriak galduko dituzula.

Zer aukeraz ari da aditua, ordea? Irakaslearen ustez, «neu-rrri batean, metabertsoak pla-netaren iraunkortasunari lagun diezaioke, joan-etorriak eta gehiegizko gastu batzuk saihestuz. Gainera, esperien-tzia oso errealistak eman die-zazkieke bestela horiek bizi-

tzeko aukerarik izango ez luke-ten pertsonei, eta horrek, neu-rrri bateraino, ondorio demo-kratizatzailea dakar».

#### UNIBERTSO IRREAL ARRISKUDUNA

Balantzaren beste aldean aur-kakoak aurkituko genituzke, hau da, Laluezaren ustez etor-kizuneko mundu birtual ho-rrek izango lituzkeen arris-kuak. Adituak hiru adierazi ditu: «Lehenengoa, metaber-tsoari, simulakro bati alegia, denbora eta energia gehiago eskaintzen amaitzea. Hipotesi horrek pentsaezina eman leza-ke, baina, hain zuzen ere, gaur egungo sare sozialek pertsona askorengan behar bat sortzen dute, plataforma horietan era-kusteko helburu bakarrarekin zenbait gauza egitekoa. Biga-rrren arriskua da metabertsoan garatzen ditugun ekintzekin geure buruari buruzko askoz ere informazio gehiago –eta askoz ere modu inkontzientea-goan– emango dugula gaurko sareetan partekatzen ditugun edukiekin baino, hauek ere as-

Metabertsoaren erabilera telefono mugikorrenaren antzekoa izan daitekeela diote adituek: hasieran teknologiazaleek baino ez zuten erabiltzen, eta gaur egun mugikorrik gabeko pertsona gutxi dago.

Gari GARAIALDE | FOKU

kotan gehiegizkoak direla kon-tuan izanda. Eta hirugarrena da gaitz jakin batzuk, hala nola jazarpena, gorroto diskurtsoa eta antzekoak, modu kaltega-rrian indartu ditzakeela ingu-runearen izaera murgiltzaile eta oso errealistak».

Ildo beretik, Pierre Bourdi-nek ohartarazi duenez, «mun-du hori birtuala izan arren, pertsonek han izango dituz-ten esperientziak benetakoak izango dira. Esan nahi dut mundu birtualeko arazo ba-tek, frustrazio edo bazterketa batek adibidez, benetako trau-mak sor ditzakeela». Eta adibi-detzat jarri du sareko jazarpe-na, gazte batzuen suizidioa eragin lezakeena.

#### EKARRIKO DITUEN ALBO ONDORIOAK

Metabertsoa oraindik entele-kia bat besterik ez den arren, merezi du kosmos birtual ho-rrekin lotutako zenbait arlori lotutako galdera batzuk ma-haigaineratzea. Gaur-gaurkoz erantzunik ez duten galderak dira, baina Bourdin irakasleak gaian sakontzeko asmoz aire-ratu dituenak. Hona hemen horietako batzuk:

–Zein izango da mundu ho-rren etika?

–Nola arautuko da «ziberbi-zitza» hori?

–Nork izango du kontrola?

–Nork erabakiko ditu arauak?

–Zein izango da gobernuen zeregina?

Ikusiko dugu ea denborak, apurka-apurka, metabertsoa-ren iragarpenak pizten dituen galdera horien eta beste ba-tzuen erantzunak argitzen di-tuen. Gaur egun, gauza bakarra dakigu ziur: «Teknologia digi-talen zale amorratuok aurretik ditugun urteotan oso entrete-nituta egongo gara egingo den karrera ikusten», iragarri du Cesar Corcoles irakasleak.